

## TORTURA AZTERGAI NBE-N

# Espainian tortura desagertu ote den zalantza azaldu dute Nazio Batuetako adituek

Atxilotuen inkomunikazioa luzeegia dela eta torturatzeagatik kondenatutakoei indultua ematea onartezina dela adierazi dute

Espainiako ordezkariak gaur eman beharko dizkie azalpenak Nazio Batuetako Torturaren Aurkako Batzordeko kideei /16

## EUROPAKO KONBENTZIOA

### Europa, euskal proposamenen zain

Brusela prozesu konstituziogileen murgilduta dago, eta Euskal Herritik ekarpenak egiteko ekimenak abian dituzte Jaurlaritzak, Eusko Legebiltzarrak eta Udalbiltzak. /10-11

## PILOTA

Lau t'erdiko txapelketa antolatu du Besagaineak, espainiar Pilota Federazioaren babesean /31

## ETORKINEN KRISIA FRANTZIAN



MICHEL SPINGLER / AP

Etorkin bat kartel batekin, bi poliziaren artean, atzo, Calaisen. Sangattera joan edo hil idatzita dago kartelean.

## Calaisko elizako etorkinek gaur arteko epea dute beren borondatez irteteko

Poliziak indarrez aterako ditu, eta Frantziako beste leku batzuetara eraman

Larunbatean Calaisko Saint-Pierre/Saint-Paul elizan babes hartu zuten ehun etorkin inguruk, azaroaren 5ean Sangatteko babeslekua itxi eta gero. Haien asmoa Erresuma Batura iristea da, eta orain arte Sangatteko babeslekua zen horretarako bidea. Paris eta Londresen artean ika-mikak sortu dira auzi honengatik, eta orain, Frantziak neurri zorrotzak hartuko ditu. /22

## IRAKI ERASOTZEKO ASMOA

# Bushek Husseinen erantzuna nahi du, ez Irakeko Legebiltzarrarena

NBEren azken ebazpena gaitzetsi zuten Irakeko parlamentariak, baina Husseinek onartu egingo duela uste du nazioartekoak /21

## HERRI LANAK

### Gazteluko Plazako lanak nahierara eman zituztela adierazi dute epaileek

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak baliogabetu egin du Iruñeko Udalaren erabakia. Aparkalekua egiteko kontratazioan «nahikoa arrazoi» ez zirela eman esan dute epaileek. /14

Euskaltel  
Hautaketa   
Kontratatu gero  
hitz egitea errezagoa da

tarifak jaitsi  
gingo dira

Jaso ezazu informazioa 015



operadore globala

Euskaltel  
batzen gaituena